2. La autoridad municipal competente podrá limitar la tenencia y/o el número máximo de animales, atendiendo a las circunstancias de alojamiento, la adecuación de las instalaciones, las condiciones higiénico-sanitarias, así como por la no existencia de situación alguna de peligro o de incomodidad, para el vecindario o para otras personas en general, o para el propio animal u otros animales.
3. La autoridad municipal podrá requerir a la persona interesada para que facilite la información y documentación relativa a las circunstancias de la tenencia de los animales, así como la puesta a disposición del animal para su observación.

**Artículo 11. Animales abandonados**

Se considera animal abandonado aquel que no tenga dueño o dueña ni domicilio conocido, o el que no lleve ninguna identificación de su origen y de su propietario o propietaria, ni vaya acom-

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
**www.laudio.eus**
IFZ/NIF: P01038001

baita identifikazioa eduki arren galduta dabiltzanak ere, baldin eta jabeak edo haren pertsona baimenduak emandako epean galdu izana salatu ez badute.

**12. artikulua. Animalia abandonatuekin jarraitu beharreko prozedura**

1. Laudio Udalak animalia abandonatuak jasoko ditu berezko edo itunpeko zerbitzu baten bidez. Animaliak harrapatu eta garraiatzeko baliabideei dagokienez, higiene- eta osasun-baldintza egokiak daudela eta animaliei justifikatu gabeko sufrimendurik eragiten ez zaiela zainduko da.
2. Animaliak babesteko udal zentroetan edo Udalarekiko itunen bat dutenetan geratuko dira aurreko puntuan aipatutakoak, legean xedatutako epean. Jabeak animaliaren bat berreskuratu nahi badu, jabea dela egiaztatu beharko du, eta, horrez gain, aplikagarriak izan litezkeen tasak eta animalia jasotzeko, tratamenduak emateko, ostatatzeko nahiz identifikatzeko egin litezkeen bestelako gastuak ordainduko ditu.
   Egoitza-epe hori murriztu ahalko da osasun-zirkunstantziei, arriskuari edota animaliaren sufrimenduari erreparatuta gomendagarria denean, betiere, zerbitzuko albaitaritza-langileen irizpideak aplikatuta.
3. Epea igarotzen bada identifikatu gabeko animalia inork erreklamatu gabe, neurri hauek aplikatu ahalko zaizkio: Jabetza hartzea, eskaera egiten duen eta animaliaren osasun-egoera nahiz egoera administratiboa erregularizatzen duen partikular bati lagatzea (I. eranskinean jaso diren baldintzetan), eta, azken buruan, eutanasia.
4. Animaliak identifikazioa daramanean, modu frogagarrian jakinaraziko zaio jabeari animalia jaso edo atxiki izana; jabeka zazpi laneguneko epea izango du animalia berreskuratzeko, baina, horretarako, dagozkion tasak eta animalia hartu den lehenengo egunetik aurrera eragindako gastuak ordaindu beharko ditu. Epe hori bukatutakoan, animalia erre-

pañado de persona alguna, así como aquel que, portando su identificación, no haya sido denunciado su extravío por su propietario o propietaria o persona autorizada en el plazo establecido.

**Artículo 12. Procedimiento ante animales abandonados**

1. Los animales abandonados serán recogidos por el Ayuntamiento de Llodio mediante Servicio propio o concertado. Los medios usados en la captura y transporte tendrán las condiciones higiénico-sanitarias adecuadas, y no producirán sufrimientos injustificados a los animales.
2. Los animales referidos en el punto precedente permanecerán en centros de protección de animales propios u otros con los que el ayuntamiento concierte la prestación de tal servicio, durante el plazo legalmente establecido. Si la persona propietaria desea recuperarlo, deberá acreditar su condición, así como abonar las tasas que establecidas y otros gastos incurridos por recogida, mantenimiento, estancia e identificación del animal en su caso.
   Cuando las circunstancias sanitarias, de peligrosidad o de sufrimiento del animal lo aconsejaran, a criterio del personal veterinario del referido servicio, el plazo citado se reducirá lo necesario.
3. Transcurrido el plazo sin que fuera reclamado el animar no identificado, podrá ser objeto de las medidas tales como: apropiación, cesión a particular que lo solicite y que regularice la situación administrativa sanitaria del animal, en las condiciones establecidas en el Anexo I, y en última instancia, sacrificio eutanásico.
4. Si el animal llevara identificación, se notificará fehacientemente su recogida y/o retención a la persona propietaria, que dispondrá de un plazo de siete días hábiles para su recuperación, quedando obligada al abono de las tasas y gastos que haya originado su estancia en el centro de acogida, desde el primer día de su ingreso. Si transcurrido dicho

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

kuperatzen ez badu, aurreko atalean aipatutako neurrietakoren bat aplikatuko zaio animaliari, animalia abandonatutzat joko baita. Horiek horrela, dagokion zehapen-espedientea irekiko zaio jabeari.

**13. artikulua. Kaleko animaliak eta hiri-animalia basatien kontrola**

1. Animaliek pertsona eta ondasunei eragin diezazkieketen eragozpenak edota arriskuak ekiditeko, herritarrek Udalaren osasun-zerbitzuei jakinaraziko diete kaleko animalien edota animalia abandonatuen presentzia.
2. Debekatua dago hegazti, txakur, katu eta kalean bizi diren gainerako animaliei nahiz hiri-animalia basatiei elikagaiak ematea bide publikoan edo orubeetan.
3. Higiezinen titular diren pertsonek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte haien ondasunean etxe-usoak ugaldu ez daitezen; horretarako, lehentasunezkoa izango da habiak eta ugalketa eragoztea. Neurri horiek ez dute inoiz animalien heriotza eragingo.
4. Habitata hirian duten animalia espezieak kontrolik gabe ugaltzeagatik justifikatua dagoenean, Udalak beharrezko ekintzak bideratuko ditu espezimen kopuruak kontrolatzeko, animalien sakrifizioa saihestuta.
5. Udalak hiriko katuen edo beste animalien kolonien kudeaketa sustatu ahalko du animaliek herritarrei eragiten dizkieten eragozpenak ekiditeko, osasun-arriskuak murrizteko, gainpopulazioa saihesteko eta animalien bizi-kalitatea hobetzeko.

**14. artikulua. Animalia batek pertsona bati eraso egitean aplikatzeko prozedura**

1. Animalia baten erasoa saltzen denean, salaketa edo jakinarazpena jaso duen udal zerbitzuak erasoa egin duen animaliaren jabea identifikatzeko baliagarri izan daitekeen ahal beste datu eskuratuko du gertatutakoa salatu edo jakinarazi duenarengandik eta horren be-

plazo, no lo hubiese recuperado, se le dará al animal el destino previsto en el apartado anterior, considerándose al animal abandonado e iniciándose a la persona propietaria el correspondiente expediente sancionador.

**Artículo 13. Animales vagabundos y control de animales salvajes urbanos**

1. A fin de evitar las molestias y/o riesgos que los animales puedan ocasionar a personas y bienes las/os ciudadanos comunicarán a los servicios sanitarios municipales la presencia de animales vagabundos o abandonados.
2. Queda prohibido facilitar alimento en la vía pública y solares a aves, perros, gatos, y demás animales vagabundos o animales salvajes urbanos, salvo autorización expresa.
3. Las personas titulares de inmuebles deberán disponer las medidas precisas para evitar la proliferación de palomas domésticas, siendo prioritario obstaculizar su nidificación o cría. Tales medidas en ningún caso deberán ocasionar daño o la muerte del animal.
4. Cuando la proliferación incontrolada de especies animales de hábitat urbano lo justifique, las autoridades municipales adoptarán las acciones necesarias que tiendan al control de su población, frente a su sacrificio.
5. El ayuntamiento podrá promover la gestión de las colonias de gatos u otros animales urbanos, a fin de minimizar las molestias que produzcan al vecindario, reducir los riesgos sanitarios, evitar la superpoblación y mejorar la calidad de vida de los animales.

**Artículo 14. Procedimiento ante una agresión de un animal a una persona**

1. El Servicio Municipal ante el que se denuncie o ponga en conocimiento la agresión causada por un animal, recabará de quien denuncie o comunique el hecho, cualquier dato que procure la identificación del propietario/a del animal causante de la agresión, poniéndolo inmediatamente en conocimiento

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

rri emango dio berehala Udaltzaingoari nahiz osasunaren arloan eskumenak dituzten udal zerbitzuei.

2. Erasoaren ondorioz hozkada-zauriak eragin badira, udal zerbitzuek espedientea ireki izanaren berri emango diete Osasun Saileko Behaketa Epidemiologikorako Unitateari eta foru aldundietako animalien osasunerako zerbitzuei.

   Zauriak eragin dituen animaliaren jabeak edo edukitzaileak 24 orduko epea izango du animalia albaitari ofizial baten edo berak aukeratutako profesional gaitu baten esku uzteko, ikuskatu dezan; txakurren kasuan, hamalau egunez luzatuko da ikuskapena, baina epe hori aldatu egiten da animalia espeziearen arabera nahiz unean uneko zirkunstantzia epizootiologikoen a. Azken kasu horretan, txosten tekniko arrazoitua beharko da ikuskapen-epea justifikatzeko. Hozkada gertatu denetik 24 ordu igarotakoan, jabeak ez badu aurreko paragrafoan xedatutakoa bete, udal erakunde eskumendunak hori egiteko errekerimendua helaraziko dio eta animalia erasotzailea animalien harrera-zentro batean sartzea edota isolatzea agindu ahalko du. Errekerimendu hori ez betetzea arau-hauste larritzat joko da ekainaren 26ko 8/1997 Legearen, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoaren 36.2.b.1 artikuluarekin bat, eta hori betearazteko beharrezkoa izan daitezkeen kautelazko neurriak ere hartu ahalko dira. Nolanahi ere, jaulkitako txostenaren edo ziurtagiriaren kostua animaliaren jabeak hartu beharko du bere gain. Jabea ezezaguna bada, gertatutakoaren berri izan duen udal zerbitzuak izango du animalia jaso eta haren ikuskapena bideratzeko ardura.

   Albaitaritzako langileek ikuskapena egin beharko dute zoonosi-arriskuak alboratu edo antzemateko eta animaliaren izaerak ekar dezakeen arrisku potentziala ebaluatzeko. Horren ostean, ikuskapenaren emaitzen berri emateko txostena edota ziurtagiria jaulkiko dute. Behin ikuskapen aldia bukatuta, jabeak 48 orduko epea izango du ziurtagiria edo

de la Policía Local y los Servicios Municipales competentes en materia de salud.

2. En el caso de que la agresión lleve aparejadas lesiones causadas por mordedura, los Servicios Municipales comunicarán a la Unidad de Vigilancia Epidemiológica del Departamento de Sanidad y a los Servicios de Sanidad Animal de las Diputaciones Forales, la apertura del expediente.

   El propietario/a o poseedor/a del animal causante de las lesiones, en el plazo de 24 horas deberá someterlo a observación de un veterinario/a oficial o personal habilitado de su elección, durante catorce días en el caso de perros, o por un periodo de tiempo distinto según el animal de que se trate o cuando las circunstancias epizootiológicas de cada momento así lo aconsejen y previo informe técnico motivado. Si transcurridas 24 horas desde la mordedura, no lo hubiese hecho de manera voluntaria, la autoridad municipal competente, le requerirá para hacerlo, pudiendo ordenar el internamiento y/o aislamiento del animal en un centro de recogida de animales. El incumplimiento de este requerimiento será considerado infracción grave de acuerdo al artículo 36.2.b.1 de la Ley 8/1997 de 26 de junio de Ordenación Sanitaria de Euskadi y sin perjuicio de la adopción de las medidas cautelares necesarias para garantizar su cumplimiento. En todo caso, el coste del informe o certificado emitido, si lo hubiere, corresponderá a la persona propietaria del animal. En el caso de que esta no fuera conocida, el Servicio Municipal conocedor de los hechos será el encargado de su recogida y puesta en observación.

   El personal veterinario deberá realizar la observación para descartar o detectar riesgos de zoonosis y para evaluar el potencial riesgo por el carácter del animal, emitiendo el correspondiente certificado / informe del resultado de la misma. La persona propietaria, terminada la observación, deberá remitir en el plazo de 48 horas el certificado / informe veterinario a la autoridad competente en la

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
**www.laudio.eus**
IFZ/NIF: P0103800I

txostena bidaltzeko lehenengo paragrafoan aipatutako erakundera, hau da, espedientea izapidetzen ari den erakunde eskumendunera. Erakunde horrek, halaber, albaitariaren ziurtagiri edo txostenaren kopia bat igorriko du Foru Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzura eta Osasun Sailaren Behaketa Epidemiologikorako Unitatera. Ikuskapenean osasun-arriskua dakarten zirkunstantziak antzematen badira, animaliaren ikuskapen aldia luzatzeko, animalia zentro batean sartzeko edota isolatzeko agindua eman ahalko du Udalak.

3. Erasoak ez badu eragin hozkaden ondoriozko zauririk, animaliaren jabeak albaitaritzako langile ofizial baten edo bere aukerako albaitaritzako profesional gaitu baten esku utzi beharko du animalia, egokitzat jotzen duten epean ikuskatu dezaten, eta animaliaren izaerak dakarren arrisku potentziala ebaluatu dezaten. Epe hori bukatutakoan, dagokion ziurtagiria jaulkiko dute, eta jabeak udal zerbitzuetara igorri beharko du, espedientea izapidetzeko.

**15. artikulua. Pertsona batek animalia bati eraso egitean aplikatzeko prozedura**

1. Animaliak jasandako erasoaren salaketa edo jakinarazpena jaso duen udal zerbitzuak erasoa edota tratu txarrak egin dituen pertsona identifikatzeko ahal beste datu eskuratuko ditu salaketa edo jakinarazpena egin duen pertsonarengandik, eta Udaltzaingoari jakinaraziko dio.
2. Administrazio eskumendunak ustez tratu txarrak jasan dituzten animaliak kenduko dizkio edukitzaile edo jabeari prebentzio-neurri gisa, eta administrazioak berak hartuko du animaliaren zaintzaren ardura animalien egoitzan sartu ostean. Horrez gain, animaliak babesteari dagokionez indarrean dagoen araudia aplikatzearen ondoriozko erantzukizunak ere eratorri ahalko dira.

**16. artikulua. Laguntzarako txakurrak edo itsu-txakurrak**

tramitación del expediente, señalada en el párrafo primero, para su incorporación al mismo, quien a su vez remitirá una copia del certificado / informe veterinario al Servicio de Ganadería de la Diputación Foral correspondiente y a la Unidad de Vigilancia Epidemiológica del Departamento de Sanidad. Si del resultado de la observación practicada se infiriesen circunstancias de riesgo sanitario, la Autoridad municipal podrá ordenar la prórroga o establecimiento del internamiento y/o aislamiento del animal.

3. Si la agresión no lleva aparejadas lesiones causadas por mordedura, la persona propietaria del animal deberá someterlo a observación por parte del personal veterinario oficial o habilitado de su elección, para evaluar el potencial riesgo del carácter del animal, durante el tiempo que éste estime necesario, emitiendo el oportuno certificado que será remitido por el o la propietaria a los Servicios municipales, para la tramitación del expediente.

**Artículo 15. Procedimiento ante una agresión de una persona a un animal**

1. El servicio municipal ante el que se denuncie o ponga en conocimiento la agresión recibida por el animal, recabará de quien denuncie o comunique los hechos, cualquier dato que procure la identificación de la persona agresora y/o maltratadora, poniéndolo en conocimiento de la Policía Local.
2. La autoridad administrativa adoptará motivadamente la medida cautelar de retirada preventiva de los animales sobre los que existan indicios de haber sufrido maltrato, y la custodia, tras su ingreso, en un centro de recogida de animales. Todo ello, sin perjuicio de otras responsabilidades que pudieran derivarse de la aplicación de la normativa vigente en materia de protección animal.

**Artículo 16. Perros de asistencia o perros-guía**

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

1. Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, behar bezala identifikatutako laguntzarako txakurrak edota itsu-txakurrak erabiltzen dituzten pertsonek leku, espazio eta garraio publikoan sartzeko aukera izango dute ekainaren 29ko 10/2007 Legean, Desgaitasuna duten Pertsonei Laguntzeko Txakurrei buruzkoan adierazitako baldintzetan.
2. Erakunde eskumendunen batek edo kasuan kasu erabiltzen ari den zerbitzuko arduradunak errekeritzen badu, laguntzarako txakurrak erabiltzen dituzten pertsonek animalia laguntzarako txakurra dela eta osasun-betekizun guztiak betetzen dituela frogatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du.
3. Laguntzarako txakurrak gaixotasun edo oldarkortasun zantzuak agertzen baditu, nabarmenki zikin dagoenean edo gainerako pertsona zein animalientzako arriskutsu izan daitekeela iradokitzen duen beste edozein zantzu badauka, bertan behera geratuko da araudi aplikagarrian oinarrituta lehenago aipatutako lekuetan sartzeko eskubidea.

**17. artikulua. Lagun egiteko animalien joan-etorriak Europar Batasunaren barruan**

Europar Batasunaren barruan desplazamenduren bat egiten duten txakur, katu eta hudoen jabeek edo haiek baimendutako pertsonek Nekazaritza eta Arrantza sailburuak 2004ko irailaren 27an emandako Aginduaren bidez edo horren ordezko arautegien bidez arautUtako pasaportea eraman beharko dute soinean desplazamenduak dirauen bitartean. Albaitaritzako langile ofizial batek edo albaitari gaitu batek jaulkia izan beharko du pasaporteak.

**18. artikulua. Txakurren araubide orokorra**

Ordenantza honetan xedatutakoaz gain, txakurren espezieko animaliei aplikatu beharko zaie ekainaren 1eko 101/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan Txakurrak edukitzeari bu-

1. No obstante lo dispuesto en los artículos anteriores, las personas usuarias de los perros de asistencia o perros-guía debidamente identificados, tendrán acceso a los lugares, espacios y transportes públicos, en las condiciones determinadas en la Ley 10/2007, de 29 de junio, sobre Perros de Asistencia para la atención a personas con discapacidad.
2. Las personas usuarias de los perros de asistencia, previo requerimiento de la autoridad competente o de la persona responsable del servicio que esté utilizando en cada caso, exhibirá la documentación que reconoce la condición de perro de asistencia del animal, así como el cumplimiento de los requisitos sanitarios correspondientes.
3. Cuando el perro de asistencia presente signos de enfermedad o agresividad, falta notoria de aseo o cualquier otro signo que evidencie de forma manifiesta riesgo para las personas u otros animales, el derecho de acceso a los lugares señalados en la normativa aplicable quedará suspendido.

**Artículo 17. Desplazamientos intracomunitarios de animales de compañía**

Las personas propietarias, o personas autorizadas por éstas, de perros, gatos y hurones que sean desplazados intracomunitariamente deberán ir acompañados durante todo el desplazamiento de un pasaporte regulado en la Orden de 27 de septiembre de 2004 del Consejero de Agricultura y Pesca, o la normativa que la sustituya, expedido por personal veterinario oficial o habilitado.

**Artículo 18. Régimen General de la especie canina**

Será de aplicación a los animales de la especie canina, además de lo dispuesto en la presente Ordenanza, lo señalado en el Decreto 101/2004, de 1 de junio, sobre Tenencia de Animales de la Especie Canina en la Comunidad Autónoma del

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

ruzkoa, martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua, zeinaren bidez garatu egiten baita abenduaren 23ko 50/1999 Legea, Potentzialki Arriskutsuak diren Animaliak edukitzearen Araubide Juridikoari buruzkoa eta indarrean dauden gainerako arauak.

*II. KAPITULUA.- POTENTZIALKI ARRISKUTSUAK DIREN ANIMALIEI BURUZKO XEDAPEN ESPEZIFIKOAK*

**19. artikulua. Araubide orokorra**

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliei aplikatuko zaie, hala definitzen baitira, aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera.

**20. artikulua. Lizentziak.**

1. Abenduaren 23ko 50/1999 Legearen, Potentzialki Arriskutsuak diren Animaliak edukitzearen Araubide Juridikoari buruzkoaren arabera potentzialki arriskutsutzat definitutako edozein animalia eduki ahal izateko, beharrezkoa izango da lehenik horretarako lizentzia administratiboa lortzea. Eskatzailea bizi den herriko udalak emango du lizentzia hori, edo, Laudio Udalari jakinarazi ostean, merkataritza edo trebakuntza jarduera bideratzen den herriko udalak, nolanahi ere, gutxienez betekizun hauek betetzen direla egiaztatu ostean:
   a) Adinez nagusi izatea.
   b) Kondenarik jaso ez izana giza hilketa, zauri edo tortura delituengatik, ezta askatasunaren, osotasuna moralaren, askatasun sexualaren edota osasun publikoaren aurkako delituengatik, banda armatuarekin elkartzeagatik edo narkotrafiko delituengatik ere. Gainera ezin izango da animalia potentzialki arriskutsuak edukitzeko eskubidea kenduta eduki ebazpen judizial bidez.
   c) Abenduaren 23ko 50/1999 Legearen, Potentzialki Arriskutsuak diren Animaliak

País Vasco, en el Real Decreto 287/2002 de 22 de marzo, que desarrolla la Ley 50/1999 de 23 de diciembre, sobre el Régimen Jurídico de la Tenencia de Animales Potencialmente Peligrosos, y demás normativa de aplicación.

*CAPÍTULO II. DISPOSICIONES ESPECÍFICAS SOBRE ANIMALES POTENCIALMENTE PELIGROSOS*

**Artículo 19. Régimen General**

Será de aplicación a los animales potencialmente peligrosos, definidos como tales, según lo establecido en la normativa de aplicación.

**Artículo 20. Licencia**

1. La tenencia de cualquier animal catalogado como potencialmente peligroso al amparo de la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre el Régimen Jurídico de la Tenencia de Animales Potencialmente Peligrosos, requerirá la previa obtención de una licencia administrativa, que será otorgada por el ayuntamiento del municipio de residencia de la persona solicitante, o, con previa constancia en este ayuntamiento, por el ayuntamiento en que se realiza la actividad de comercio o adiestramiento, una vez verificado el cumplimiento de, al menos, los siguientes requisitos:
   a) Ser mayor de edad.
   b) No haber condenado/a por delitos de homicidio, lesiones, torturas, contra la libertad o contra la integridad moral, la libertad sexual y la salud pública, asociación con banda armada o de narcotráfico, así como no estar privado/a por resolución judicial del derecho a la tenencia de animales potencialmente peligrosos.
   c) No haber sido sancionado/a por infracciones graves o muy graves con alguna de las sanciones accesorias de las previstas en el apartado 3 del art. 13 de la Ley 50/1999, de 23 de Diciembre, sobre el

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

edukitzearen Araubide Juridikoari buruzkoaren 13. artikuluaren 3. idatzi-zatian aurreikusitako zehapen erantsirik jaso ez izana arau-hauste larri edo oso larriengatik. Hala ere, ez da lizentzia lortzeko edo, hala badagokio, berritzeko eragozpena izango lizentzia aldi baterako kendu izana, betiere, lizentzia-eskaera egiten den unean osoki betea badago lizentzia aldi baterako kentzeko zehapen hori.

d) Potentzialki arriskutsuak diren animaliak edukitzeko behar den gaitasun fisikoa eta egokimen psikologikoa izatea.

e) Egiaztatzea hirugarrenei eragin lekizkiekeen kalteak estaltzeko erantzukizun zibileko asegurua formalizatu izana. Gutxienez, ehun eta hogei mila euroko (120.000) estaldura izan beharko du aseguruak, eta 101/2004 Dekretuaren 12 eta 13.3.e) artikuluen arabera, animalia identifikatu ondorengo hamar egunetan kontratatu beharko da, animalia dagokion erregistroan inskribatu aurretik.

Seguru hori beste aseguruen barruan sartua egon ahalko da, baina, edonola ere, aseguru-konpainiak emandako ziurtagiri bidez egiaztatu beharko da kontratatu izana, 101/2004 Dekretuan jasotako ereduarekin bat. Ziurtagirian esanbidez aipatu egin beharko dira aseguruak estalitako txakurraren identifikazioa eta aseguruaren ondore- nahiz amaitze-datak.

Animaliaren titularraren ardura izango da ziurtatzea animalia bizirik dagoen bitartean indarrean dagoen erantzukizun zibileko aseguru baten bidez estalia dagoela, eta, horretarako, beharrezkoak diren berritzeak egin beharko ditu, hala dagokionean.

2. idatzi-zati honetako b) eta c) paragrafoetan xedatutako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko, kasuan kasuko erregistroek emandako ezezko ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera lortzen

Régimen Jurídico de Animales Potencialmente Peligrosos. No obstante, no será impedimento para la obtención o, en su caso, renovación de la licencia, haber sido sancionado o sancionada con la suspensión temporal de la misma, siempre que, en el momento de la solicitud, la sanción de suspensión anteriormente impuesta haya sido cumplida íntegramente.

d) Disponer de capacidad física y aptitud psicológica para la tenencia de animales potencialmente peligrosos.

e) Acreditación de haber formalizado un seguro de responsabilidad civil por daños a terceros con una cobertura no inferior a ciento veinte mil euros (120.000), que, conforme al artículo 12 y 13.3.e) del Decreto 101/2004, será contratado en el plazo de diez días desde la identificación del animal y previamente a la inclusión del mismo en el registro correspondiente.

Dicho seguro podrá estar incorporado en otros seguros, pero, en todo caso, su contratación deberá estar acreditada por medio de un certificado, conforme al modelo que figura en el anexo III del Decreto 101/2004, emitido por la compañía aseguradora. En el mismo, se hará referencia expresa a la identificación del perro cubierto y las fechas de efecto y vencimiento del mismo.

La persona titular del animal será responsable de que el animal esté cubierto durante la vida de éste por un seguro de responsabilidad civil en vigor, realizando para ello las renovaciones que sean necesarias en el momento oportuno.

2. El cumplimiento de los requisitos establecidos en los párrafos b) y c) de este apartado 1. se acreditará mediante los certificados negativos expedidos por los registros correspondientes. La capacidad física y la aptitud psicológica se acreditarán mediante los certificados obtenidos de conformidad con lo dispuesto en el Real Decreto 287/2002 de 22 de marzo.

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

diren ziurtagirien bidez egiaztatuko dira gaitasun fisikoa eta egokimen psikologikoa.

3. Interesdunak eskatuta eman eta berrituko du udal organo eskumendunak lizentzia administratiboa, 50/1999 Legean xedatutakoarekin bat, eta aurreko atalean ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatu ostean.
4. Lizentziak bost urteko indarraldia izango du, eta iraupen bereko epeetarako berritu ahalko da. Hala ere, lizentzia errebokatu ahalko da lizentzia hasiera batean emateko baldintzak betetzen ez direnean. Lizentziaren titularrak lizentzian ageri diren datuen aldaketa oro jakinarazi beharko dio Udaltzaingoari, aldaketa jazo eta hurrengo hamabost egunetan, aldaketa horiek erregistra daitezen.
5. Bide judizialean edo administrazio-bidean erabakitako indarreko administrazio-lizentzia bati eragiten dion esku-hartzea, kautela-neurria edo etendura beste lizentzia bat ematea edo berritzea ukatzeko arrazoia izango da, lizentzia hori kendu arte.
6. Artikulu honen lehenengo paragrafoan xedatutako betekizunak bete gabe eman diren lizentziak deusezak izango dira ondore guztietarako, eta, beraz, horren titularrak lizentziarik ez duela iritziko zaio.

**21. artikulua. Potentzialki Arriskutsuak diren Animalien Erregistroa**

1. Arriskutsua izan daitekeen animaliaren jabeari dagokio animalia hori Arriskutsuak izan daitezkeen Animalien Udal Erregistroan inskribatzeko eskatzeko betebeharra, dagokion lizentzia lortu eta hurrengo hamabost egunen barruan, eta indarrean dauden zerga-ordenantzetan ezarritako tasa edo prezio publikoa ordainduko du.
2. Animalia bat Arriskutsuak izan daitezkeen Animalien Udal Erregistroan inskribatzen duen udal-organoak Euskal Autonomia Erkidegoko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrera bidaliko ditu datuak. Halaber, inskripzio hori egiaztatzen duen agiri bat

3. La licencia administrativa será otorgada o renovada a petición de la persona interesada, por el órgano municipal competente, conforme a lo dispuesto en la Ley 50/1999, una vez verificado el cumplimiento de los requisitos establecidos en el apartado anterior.
4. La licencia tendrá un periodo de validez de cinco años pudiendo ser renovada por periodos sucesivos de igual duración. No obstante, procederá su revocación cuando se incumplan las condiciones que motivaron su concesión. Cualquier variación de los datos que figuran en la licencia deberá ser comunicada por su titular en el plazo de quince días, contados desde la fecha en que se produzca, a la Policía Local para su modificación.
5. La intervención, medida cautelar o suspensión que afecte a una licencia administrativa en vigor, acordada en vía judicial o administrativa, será causa para denar la expedición de otra nueva o su renovación hasta que aquellas se hayan levantado.
6. Las licencias concedidas sin haber cumplido los requisitos exigidos en el párrafo 1 de este artículo, serán nulas a todos los efectos y, por tanto, se considerará a la persona titular de la misma como carente de licencia.

**Artículo 21. Registro de Animales Potencialmente Peligrosos**

1. Incumbe a la persona propietaria del animal catalogado como potencialmente peligroso, la obligación de solicitar su inscripción en el Registro Municipal de Animales Potencialmente Peligrosos, dentro de los quince días siguientes a la fecha en que haya obtenido la correspondiente licencia, abonando la tasa o precio público establecido en las Ordenanzas fiscales vigentes.
2. El órgano municipal que inscriba un animal en el Registro Municipal de Animales Potencialmente Peligrosos remitirá los datos al Registro General de Identificación de Animales de la CAPV. Asimismo, emitirá un documento acreditativo de dicha inscripción.

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

emango du.

3. Potentzialki Arriskutsuak diren Animalien Udal Erregistroari jakinarazi beharko zaio kasuan kasuko animalia saldu, eskualdatu, eman, lapurtu, hil edo galdu izana, dagokion erregistro-orrian jasoa uzteko.
4. Potentzialki arriskutsua den animalia bat Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko udalerri batera eramaten bada han geratzeko edo hiru hilabete baino gehiago igarotzeko, jabeak beharrezko inskripzioak egin beharko ditu kasuan kasuko udal erregistroetan.
5. Titularrak ez baditu betetzen artikulu honetan xedatutakoa, dagokion zehapen administratiboa ezarriko zaio, 50/1999 Legearen 13. artikuluan xedatutakoarekin bat.

### 22. artikulua. Segurtasun-neurriak

1. Potentzialki arriskutsutzat sailkatutako arraza edota espezieren bateko animalien jabe, edukitzaile eta hazleen betebeharra izango da indarrean dagoen legedian xedatutako herri-segurtasuneko neurri guztiak betetzea, animalien eta gizakien arteko bizikidetza egokia izan dadin eta herritarrei eragozpenik ez eragiteko.
2. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak beren tamaina eta arrazarako egokia den mutur batekin eraman beharko dira, bai eta bi metro baino gutxiagoko luzapenik gabeko kate edo uhal erresistente batekin ere, eta ezin izango da inola ere aske ibili, pertsona bakoitzeko txakur horietako bat baino gehiago eraman gabe. Debekatuta dago arnesak erabiltzea, lepoan, ahoan, sudurrean edo alboetan patologia edo lesioa duten animalien kasuan izan ezik, horietan lepokoak kaltea eta mina eragin baitezake. Horretarako, gaitutako albaitariek patologia eta arnesa erabiltzeko gomendioa zehazten dituen ziurtagiria egin beharko dute.
3. Potentzialki arriskutsuak diren animaliak leku edo espazio publikoetan egon ahal izateko, animaliak gidatzen eta kontrolatzen di-

3. Deberá comunicarse al Registro Municipal de Animales Potencialmente Peligrosos la venta, traspaso, donación, robo, muerte o pérdida del animal, haciéndose constar en su correspondiente hoja registral.
4. El traslado de un animal potencialmente peligroso a un municipio de fuera de la CAPV, con carácter permanente o por periodo superior a tres meses, obligará a su propietario/a a efectuar las inscripciones oportunas en los correspondientes Registros Municipales.
5. El incumplimiento por la persona titular del animal de lo preceptuado en este artículo será objeto de la correspondiente sanción administrativa, de conformidad con lo dispuesto en el art. 13 de la Ley 50/1999.

### Artículo 22. Medidas de seguridad

1. Las personas propietarias, tenedoras o criadoras de ejemplares de razas consideradas potencialmente peligrosas, tendrán obligación de cumplir todas las normas de seguridad ciudadana establecidas en la legislación vigente, de modo que garanticen la óptima convivencia de estos animales con los seres humanos y eviten molestias a la población.
2. Los perros potencialmente peligrosos deberán ser llevados con bozal adecuado a su tamaño y raza, así como con una cadena o correa resistente no extensible de menos de dos metros de longitud, no pudiendo circular sueltos en ningún supuesto y bajo ninguna circunstancia, sin que pueda llevarse más de uno de esos perros por persona. Se prohíbe la utilización de arneses, salvo en los supuestos de animales con patología o lesión en la zona del cuello, boca, nariz o zonas anexas, donde el collar puede ocasionar daño y dolor, previa emisión de certificado por personal veterinario habilitado especificando la patología y recomendación de uso de arnés.
3. La presencia de animales potencialmente peligrosos en lugares o espacios públicos exigirá que la persona que los conduzca y controle lleve consigo la licencia administra-

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

tuen pertsonak ordenantza honetan aipatutako lizentzia administratiboa, potentzialki arriskutsuak diren animaliak edukitzekoa eraman beharko du soinean, baita animalia Potentzialki Arriskutsuak diren Animalien Udal Erregistroan inskribatu izana egiaztatzeko ziurtagiria ere.

4. inka, basetxe, txalet, partzela, terraza, patio edo mugatutako beste edozein espaziotan dauden animalia potentzialki arriskutsuek lotuta egon beharko dute, betiere, leku horietan sartu edo gertu igarotzen diren pertsonak eta animaliak babesteko azalera, altuera eta itxitura egokiak dituen leku bat ez badaukate.
5. Potentzialki arriskutsuak diren animalien hazle, hezitzaile eta merkatariek instalazio eta baliabide egokiak izan beharko dituzte horiek edukitzeko.
6. Potentzialki arriskutsua den animalia bat lapurtzen bada, titularrak horren berri eman beharko dio Potentzialki Arriskutsuak diren Animalien Udal Erregistroari, lapurretaren berri izan eta hurrengo berrogeita zortzi orduetan.

**23. artikulua. Salbuespenak**

Zirkunstantziak aintzat hartuta gomendagarria denean, salbuespenak egin ahalko dira jabe eta edukitzaileen betebeharrei dagokienez, zehazki, kasu hauetan:

- Animalia horiek funtzio sozial batez erabiltzen dituzten erakunde publiko edo pribatuak
- Abereak zaindu, defendatu eta gobernatzeko txakurrak erabiltzen dituzten nekazaritza-ustiategiak, baita ehiza-jarduerak ere, baina, betiere, 50/1999 Legean jasotako jarduera ez-zilegietan aritzeko debekua errespetatuta.
- Agintaritza eskumendunak baimendu eta ikuskatutako lan- edota kirol-probetan parte hartuko duten animalien lan- edota kirol-probak, betiere, kanpo utzita borroka eta erasorako ariketak, indarrean dagoen araudiarekin eta ordenantza honekin bat.

tiva para animales potencialmente peligrosos a la que se refiere la presente Ordenanza, así como certificación acreditativa de la inscripción del animal en el Registro Municipal de animales potencialmente peligrosos.

4. Los animales potencialmente peligrosos, que se encuentren en una finca, casa de campo, chalet, parcela, terraza, patio o cualquier otro lugar delimitado, habrán de estar atados, a no ser que se disponga de habitáculo con la superficie, altura y adecuado cerramiento, para proteger a las personas o animales que accedan o se acerquen a estos lugares.
5. Las personas criadoras, adiestradoras y comerciantes de animales potencialmente peligrosos habrán de disponer de instalaciones y medios adecuados para su tenencia.
6. La sustracción o pérdida de un animal potencialmente peligroso habrá de ser comunicada por su titular al Registro Municipal de animales potencialmente peligrosos en el plazo máximo de cuarenta y ocho horas desde que se tenga conocimiento de esos hechos.

**Artículo 23. Excepciones**

Cuando las circunstancias así lo aconsejen, podrán establecerse excepciones al cumplimiento de determinadas obligaciones de las personas propietarias y poseedoras en casos de:

- Organismos públicos o privados que utilicen estos animales con una función social.
- Explotaciones agrarias que utilicen perros de guardia, defensa y manejo de ganado, así como actividades de carácter cinegético, sin que los mismos puedan dedicarse, en ningún caso, a las actividades ilícitas contempladas en la Ley 50/1999.
- Pruebas de trabajo y deportivas con fines a la selección de ejemplares que participan en las mismas y que están autorizadas y supervisadas por la autoridad competente, con exclusión de los ejercicios para peleas y ataque, según lo dispuesto en la normativa vigente y en la presente Ordenanza.

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

**24. artikulua. Potentzialki arriskutsuak diren animaliak garraiatzea**

Animalien ongizateari buruzko araudi espezifikoaren arabera garraiatu beharko dira potentzialki arriskutsuak diren animaliak, eta, nolanahi ere, zirkunstantzien araberako zuhurtzia-neurriak hartu beharko dira pertsonen, ondasunen eta beste animalien segurtasuna bermatzeko garraioan, itxaron denboretan nahiz animalia kargatu eta deskargatzeko lanetan.

**HIRUGARREN TITULUA. ANIMALIEKIN ERLAZIONATUTAKO JARDUEREZ**

**25. artikulua. Araubide orokorra**

1. Zoologi guneei dagokienez, apirilaren 11ko 81/2006 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Zoologi Guneei buruzkoa bete beharko da, edo horren ordezko araudia.
2. Zoologi gune ibiltariei, erakusketei eta animalien lehiaketei eta animalien presentzia duten euskal herri kirolei dagokienez, beharrezkoa izango da dagokion udal lizentzia edo baimena eskuratzea, indarrean dagoen legedian jasotako foru baimenez edota erkidego baimenez gain.
3. Animaliak saltzeko establezimendu guztiek apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Zoologi Guneei buruzkoa bete beharko da, edo horren ordezko araudia, eta, horrez gain, betekizun hauek bete beharko dira:

a) Instalazio eta ekipamenduei dagokienez, erosotasun baldintza egokiak bermatu beharko zaizkie animaliei aldirako dituzten bizilekuetan. Halaber, ariketa fisikoa egiteko aukera eman beharko zaie animaliei.
b) Aireztatze-sistema naturalak egon beharko dira, eta lokala behar bezala aireztatu beharko da.
c) Establezimenduan dauden animalia moten

**Artículo 24. Transporte de animales potencialmente peligrosos**

El transporte de animales potencialmente peligrosos habrá de efectuarse de conformidad con la normativa específica sobre bienestar animal, debiéndose adoptar las medidas precautorias que las circunstancias aconsejen para garantizar la seguridad de las personas, bienes y otros animales, durante los tiempos de transporte y espera de carga y descarga.

**TÍTULO TERCERO. DE LAS ACTIVIDADES RELACIONADAS CON LOS ANIMALES**

**Artículo 25. Régimen General**

1. Los núcleos zoológicos se regirán por lo establecido en el Decreto 81/2006, de 11 de abril, de núcleos zoológicos de la CAPV o la normativa que lo sustituya.
2. En el caso de núcleos zoológicos itinerantes, exposiciones y concursos de animales, así como en exhibiciones de deporte rural vasco con presencia de animales, será necesaria la obtención de la oportuna licencia o autorización municipal, además de los permisos forales y/o autonómicos establecidos en la legislación vigente.
3. Todos los establecimientos destinados a la venta de animales deben cumplir con lo establecido en el Decreto 81/2006, de 11 de abril, de núcleos zoológicos de la CAPV o la normativa que lo sustituya, y además deberán reunir los siguientes requisitos:

a) Las instalaciones y equipos deberán garantizar en todo momento condiciones adecuadas de confort de los animales en su lugar de alojamiento. Asimismo, les se dará oportunidad de realizar de forma diaria ejercicio físico.
b) Deberán contar con sistemas de aireación natural y asegurar la adecuada ventilación del local.
c) Insonorización adecuada según el tipo de

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

araberako intsonorizazio egokia egon beharko da, zarata eta bibrazioen udal ordenantzan xedatutakoa betetzeko.

d) Hormek eta zoruek erraz garbitu eta desinfektatzeko moduko estaldurak izan behar dituzte.
e) Profil ahur edo konkaboa izan beharko dute horma eta zoruen arteko junturek.
